

Josu Landaren filosofiaren hiru une

Three moments in Josu Landa's philosophy

GUILLERMO HURTADO*

Ikerketa Filosofikoen Institutua
(Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa)

Larraitx Garmendiak gaztelaniatik itzulia.

LABURPENA. Artikulu honetan, Josu Landaren filosofiaren garapenean giltzarri izan diren hiru une aztertzen dira. Lehenak 2002ko *Poética* liburuan eskaini zuen poesiaren filosofia barne hartzen du. Bigarrena, 2012an Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko mugan praktikan jartzeko eredu etiko gisa eskaini zuen ziniko, epikurotar eta estoikoen filosofiaren azalpenean datza. Hirugarrena, berriki aztertu dituen zentzuaren, egiaren eta bizitzaren kontzeptuen arteko erlazio sakonak dira.

GAKO-HITZAK: bizitza; egia; etika; muga; poesia; zentzua.

ABSTRACT. This article analyses three key moments in the development of Josu Landa's philosophy. The first includes the philosophy of poetry that he offered in his 2002 book *Poética*. The second is an explanation of the philosophy of the cynics, epicurians and stoics that he offered in 2012 as an ethical model to be put into practice on the border between Mexico and the United States. The third is the deep relationships between the concepts of meaning, truth and life that he has recently explored.

KEYWORDS: life; truth; ethics; border; poetry; sense.

1. Sarrera

Josu Landaren ibilbide filosofikoa hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi zen, Venezuelan eta Euskal Herrian konfrontazio politiko handia izan zen garaian. Testuinguru horrek eragina izan zuen, bere gaztaroan, autorearen pentsamendu marxistan interesatu zedin. Garai horretako fruitu izan zen *El método en Marx* liburua, Monte Ávilak zenbait urte geroago, 2013an, argitaratu

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Guillermo Hurtado. Instituto de Investigaciones Filosóficas. Ciudad Universitaria. Coyoacán. 04510 Mexiko – gmhp@unam.mx

Nola aipatu / How to cite: Hurtado, Guillermo (2026). "Josu Landaren filosofiaren hiru une", *Gogoia*, 26, 21-33. (<https://doi.org/10.1387/gogoia.28386>).

Jasoa: 2025-12-14. Onartua: 2026-02-06. Aurrea online argitaratua: 2026-03-11.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

tua. Liburu hori Venezuelako Ekialdeko Unibertsitatean lortu zuen lizentziategian oinarritzen da. Unibertsitate-titulu horrekin, Landak filosofia-ikasketak egin zituen Caracasko Simon Bolívar Unibertsitatean. Bertan, batez ere, Angel Cappellettiren eskolak izan zituen eragingarri, baina baita beste irakasle batzuenak ere, Eduardo Vázquez-enak kasu baterako.

Landak ikasketak Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan jarraitzea erabaki zuen. Laurogeiko hamarkadaren erdialdean, unibertsitate horretako graduondokoa sartu zen, eta bertan filosofiako maisutza eta gero doktoretza lortu zituen. Mexikon, besteak beste, Juliana González, Ramón Xirau, Fernando Salmerón, Jorge Martínez Contreras eta Alejandro Tomasini-*ren* irakaskuntzatik elikatu zen. Urte horietan, Landak atzean utzi zuen bere joera marxista eta beste ikuspegi filosofiko batzuk aztertu zituen. Bere pentsamenduaren etengabeko ezaugarria, orduz geroztik, antzinako filosofiaren berreskuratze kritikoa izan da. Nabarmenezkoa da, ildo horretan, *Platón: la filosofía como ciencia política* (2025) bere liburu berriena. Hala ere, Landaren filosofiaren ezaugarri nagusia bere interesen zabaltasuna da, iraganeko eta oraingo filosofiaren autore handiei buruz duen ezagutza sendoa oinarritua.

Landak Mexikon egin du bere ibilbide akademikoa, graduondoko zein graduaurreko hainbat ikasgaitako katedradun gisa. Bere ehunka ikasleen artean, Carlos Vargas Pacheco eta Donovan Arteaga Ocampo nabarmendu ditzaiegun, bere hurbileneko bi dizipulu.

Ez da erraza Josu Landaren lan filosofikoaren ikuspegi osoa ematea. Lehenik eta behin, oso zabala delako. Bere idatziak filosofikoak baino ez dira, baina, gainera, saiakera eta literatur idatzi ugari egin ditu gai filosofikoak landuz. Bigarrenik, bere lana gaur egun ere sakabanatuta dagoela aipatu beharko litzateke. Bere liburuak eta saiakerak argitaletxe askotan argitaratu dira, herrialde askotan, eta ez da erraza guztiak agerian eta, zer esanik ez, eskura edukitzea. Gainera, Landak zenbait gai filosofikori buruz sakonki jorratu dituen tratatuak idatzi baditu ere, bere lan filosofikoaren zati handi bat artikulu eta saiakeretan dago. Josu Landaren filosofia, bere liburuetan ez ezik, bere hitzaldi, artikulu, saiakera filosofiko eta literarioetan ere bilatu behar da.

Azkenik, hirugarrenik, azpimarratu behar da, halaber, bere interes filosofikoak, langai hartu dituen gaiak, ugariak direla: hasi ontologiatik eta estetikara, antropologia filosofikotik filosofia politikora, etikatik historiaren filosofiara. Landak ez du sistema zehatzik formulatu, ez baita hori berak landu nahi duen filosofia mota, baina esan genezake bere interesen hedadura lehengo sistema filosofiko batean sar litekeela.

Horregatik, ez dut hemen bere filosofiaren sintesi bat eskaini nahi, bere pentsamendu filosofikoaren hiru une aztertu baizik, azpimarragarriak iruditzen zaizkidan hiru une. Lehenengoa poesiaren ontologiaz arduratzen da,

eta gai horri bi liburu eskaini zizkion. Bigarrena, hamarkada bat geroago gertatzen dena, antzinakoen pentsamendu etikoaren garrantziaz arduratzen da, gure orainaldiko existentzia ulertzeko. Hirugarrena ere hamarkada baten ondoren sortu zen, eta egia, zentzua eta bizitza kontzeptuen arteko harremanari buruzkoa da. Ikusiko denez, hiru une horietan nabari dira zenbait hodi komunikatzaile, Landaren filosofiaren garapena gaur egunera arte marrazteko aukera ematen digutenak.

2. Poesia

Josu Landa poeta eta filosofoa da. Erraz esaten da, baina konbinazio hori gero eta arraragoa da. Jakina denez, poesia eta filosofia hurbilekoak izan dira sorreratik. Hala ere, harreman horrek urruntze uneak bizi izan ditu, baita antagonismo uneak ere. Gurea bezalako mundu batean, non poesiari eta filosofiari kontrako norabideetara jotzen dieten indar ahaltsuak baitaude, Josu Landaren lanak lotura argigarriak ehundu ditu bi diziplinen artean, baina, batez ere, bakoitzaren iturbururik sakonenen artean; Landak *Noesis*-en ahalmenetan, egiaren intuizioan, eta *Poiesis*-en, prozesu sortzaileen ekintzan, aurkitzen ditu horiek. Filosofia eta poesia, dio Landak, giza-kiak zentzuz bizitzeko egiten dituen ahaleginik handienak dira. Horrexegatik esan daiteke bereizten saiatzen diren indarrek giza zentzuaren aurka egiten dutela.

Poesia zer den galdetzeak bi erantzun nabarmen izan ditu Mexikoko kulturean; klasikoak, esan genezake. Lehenengoa Alfonso Reyesen *El deslinde* azterketa da, eta bigarrena Octavio Pazen *El arco y la lira* saiakera. Jatorri-tradizio horren barruan, non María Zambrano, Adolfo Sánchez Vázquez eta Ramón Xirau espainiar erbesteko autoreak ere sartzen baitira, Landak *Más allá de la palabra. Para la topología del poema* (1996) eta *Poética* (2002) bere liburuetan agertzen den poesiaren filosofia bat proposatu du. Horietako bigarrena lehenengoaren bertsio kontzentratuagoa da, eta, beraz, horretaz arduratuko naiz atal honetan.

Poétican, Landak poesiaren ontologia bat eskaintzen digu, esentzien eta substantzien ontologiatik harago doana, harremanen eta gertaeren ontologia bat hartzeko. Poema ez da materia eta forma, edukia eta egitura dituen gauza; aitzitik, oso gertakari konplexua da, orrialde inprimatu batean agertzen den testu-objektura mugatu ezin dena, eta, are gutxiago, izaera poetiko *per se*, aldaezin, betierekoa duen entitate abstraktu modukoa bezala determinatu. Landak proposatzen diguna ontologia oso konplexua da, oso aberatsa, poemaren poetikaren eraketan parte hartzen duten hainbat alderdi kontuan hartzen dituen, eta ez testuaren berezko ezaugarriekin bakarrik, baizik eta testuz kanpoko beste askorekin ere zerikusia dutenak, horiek gabe ezingo baikenuke ulertu testu-objektu soilaren dimentsio poetiko hori.

Landak poesiari buruzko galderarik ohikoenekin hasten du bere liburua. Zerk bereizten du prosatik? Bere nolakotasun *formalak* bakarrik, hau da, bere erritmoak, bere errimak, bere bertsogintzak? Edo, agian, haren *edukian* badago hura ezaugarritzeko aukera ematen digun zerbait, “prosazko poema” deiturikoan gertatzen den bezala? Landak dio galdera horiek funtsean ontologikoak direla; ez poesia esentzia gisa, baizik eta testu jakin batzuen izaera poema gisa. Landak dio ez dagoela testu bat, berez, poema izateko baldintza beharrezko eta nahikorik, baina horrek ez duela esan nahi poema gisa legitimoki kalifikatzea merezi duen testurik ez dagoenik. Landa aipatuko dut:

Testu batean dagoen ezein elementu edo atributu ez da aski poetikotzat jotzeko. Horri buruzko erreferentzia tradizional guztiek huts egiten dute teoriarik, nahiz eta unerik batean poesia-kritika egiteko nolabaiteko egokitasuna izan dezaketen. Hala, ez hitzezko edertasunak, ez haren bikaintasunak, ez musikaltasunak, ez egiturak, ez ironiak, ez sintaxiak, ez formak, ez funtzio poetikoak, ez “testuaren plazerak” ez diote ematen, berez, izaera poetikorik ezein hitz multzori. (Landa 2002: 27)¹

Hala ere, aurreko horrek ez du esan nahi poema posible gisa eskaintzen zaigun testu-entitaterik ez dagoenik, ezta entitate horiek “poetikotasunari buruz hitz egiten duten eta judizio oro zentzu horretan oinarritzeko aukera ematen duten zantzu, ebidentzia eta presentzien multzo bat” dutenik ere (Landa 2002: 29).² Poetikotasunaren esentzia baino gehiago, familia-antzekotasunak aurkitzen ditugu, Wittgensteinek bere filosofia berantiarrean deskribatzen dituen bezala. “Zantzu” horiek mota askotakoak dira, eta, gainera, egilearen asmo batengatik daude hor, testu hori poematzat har dadin. Hala ere, zantzuak, nolabait esateko, testuaren barruan daude; asmoak, berriz, testutik kanpo. Honela deskribatzen ditu Landak:

Hainbat alderdik, hala nola testua nork proposatzen duen (batez ere, poeta gisa itzal handia duen autorearen denean), testua zer bitartekoren bitartez egiten duen (zer argitaletxe, zer aldizkari eta abar), zer irakurketa-modalitate iradokitzen edo eskatzen dituen, hizkuntzekin zer-nolako harremana duen, zer irakurle mota eskatzen duen eta abarrek asmo estetiko jakin bat salatzen dute bere berezitasunean. (Landa 2002: 41)³

¹ [Ningún elemento o atributo presente en un texto basta para caracterizarlo como poético. Todas las referencias tradicionales al respecto son teóricamente fallidas, aunque en algún momento puedan tener cierta pertinencia para el ejercicio de la crítica de poesía. Así, ni la belleza verbal ni su sublimidad ni la musicalidad ni la estructura ni la ironía ni la sintaxis ni la forma ni la función poética ni el “placer del texto” confieren, por sí solos, un carácter poético a ningún conjunto de palabras.]

² [Un conjunto de indicios, evidencias y presencias que hablan de lo poético y permiten fundamentar todo juicio en tal sentido.]

³ [Aspectos como quién propone el texto (sobre todo cuando se trata de un autor consagrado como poeta), a través de qué medio lo hace (qué editoriales, qué revistas, etc.), qué modalidades

Nola erantzun, orduan, poema bat zer motatako gauza den galderari? Landa testu poetikoaren gauzatasunari aurre egin beharrean dago; hala ere, testu hori poema izatera irits daiteke poemak, gauza bat den aldetik, autorearen deliberamendua gaingiditzen duenean bakarrik. Materiaren eta formaren arteko bereizketa zaharrak ez du balio poema gauza gisa, objektu material gisa ulertzeko. Poema ez da substantziala, erlazonala baizik. Horrela, testu poetikoa “poesia-eremu” gisa ageri da, *ad intra* eta *ad extra* harremanen eremu gisa, konexio-bilbe pluralen topagune gisa, esentzia determinagarri eta jakin batetik harago. Testu baten errealitate poetikoa, poema izan ala ez, testu horrek lotura horiek adierazten eta pizten dituen moduaren arabera izango da. Harreman horiek denbora-tarte bat hartzen duen gertaera bat sortzen dute. Hartara, esan liteke poema, azken finean, testu poetikoan, gauzan, oinarritzen den gertakari poetiko bat dela, baina hortik harago doana.

Aurrekotik ondorioztatzen da poema beti dela desberdina, nahiz eta, nolabait, bera izan. Jar dezagun, adibide gisa, Gongoraren *Las Soledades*. Espainian irakurritz gero XVII. mendean, bat izango da, eta Mexikon irakurritz gero XXI. mendean beste bat; eta, hala ere, ez dira guztiz desberdinak izango, poemaren oinarri materiala, poemaren gauza bera izango baita, nahiz eta poemaren errealitatea sortu eta osatuko duten gertakari poetikoak desberdinak izan, sortutako harremanak ezinbestean ezberdinak izango direlako.

Liburuaren hirugarren eta laugarren kapituluetan, Landak poema bat egitea ahalbidetzen duten testu barruko baldintzei erreparatzen die. Beraz, *transignifikazio-printzipio* bat proposatzen du. Transignifikazioa prozesu bat da, zeinaren bidez testu poetikoaren esanahia —hitzez hitzekoa— esanahi poetiko oso bihurtzen baita. Horretarako, gertakari poetikoa osatzen duten harreman guztiak kontuan hartu behar badira ere, testuan bertan badaude hori gauzatzeko baliabide bereziak. Horregatik, metaforak, metonimiak, sinekdokeak, kiasmoak, katakresiak berez dute asmo transignifikatzailea; hau da, hitzaren esanahi arruntetik harago joan eta beste plano batera eramatea, ez esanahiz bakarrik, existentziaz ere bai, sortzen dena poema oso bat baita.

Landak arreta berezia jartzen dio metaforaren fenomenoari, batzuen-tzat poesiaren muina baita. Transignifikazio-printzipioaz gain, Landak *errebantzia-printzipioa* eskaintzen du. Landaren ustez, printzipio horren arabera, testu poetiko batean elementu batzuek egon behar dute “mugaketen, seinale grafikoek, aditz-antolamenduen eta testu-konposizioko beste baliabide batzuen bidez bakartzeko, bereizteko eta nabarmentzeko” (Landa 2002: 98).⁴ Testu poetikoaren garrantzizko faktoreak amuak bezalakoak dira, eta mota

de lectura sugiere o exige, qué tipo de relación mantiene con los lenguajes, qué clase de lector reclama, etcétera, delatan, en su peculiaridad, una intención estética concreta.]

⁴ [Individuar, diferenciar, hacer sobresalir por medio de delimitaciones, señas gráficas diversas, disposiciones verbales y otros recursos de composición textual.]

askotakoak izan daitezke: metrika zorrotzak, aditz-melodiak, erritmoak, adjektibo harrigarriak, gai arraroak, sintaxiari men ez egitea, puntuaziorik eza, neologismoak, arkaismoak, hitzen banaketa anomaloak orrialdearen gainean, etab.

Bosgarren kapituluan, Landa asmo poetikodun testu batetik abiatuta poema bete-betean egitea ahalbidetzen duten testuaz kanpoko baldintzez ari da. Landak agerian uzten du poemaren izatea faktore- eta gauza-multzo baten elkarketari lotuta dagoela, eta horren zentzua, hain zuzen ere, poetikoki gertatzeak ematen duela. Esan bezala, ez dago berez poetikoa den testurik. Poema bat izan dadin, testuak ezaugarri jakin batzuk dituen testu-eremu baten barruan egon behar du, eta harreman jakin batzuk izaten diren *errealizazio poetikorako eremu* baten barruan. Landa aipatuko dut:

Poema gerta dadin, poetak eta irakurleak bertan egon behar dute, eta nolabait erlazionatu asmo poetikoa duen testu-konposizioa, testuaren errebantzia, irakurle-poeta, balio-“gainegitura” moduko bat, testua eskuratzeko bitartekoak, poetikoa gauzatzeko harremanak gertatzen diren egoerak, prozesu-aniztasuna (konposizioa, irakurketa, kritika, elkarriketa...) hainbat zentzutari eta hainbat irismeneko. (Landa 2002: 132)⁵

Aurreko aipamenetik, “poema gerta dadin” esaldia azpimarratuko nuke. Poema bat, Landak erakusten digun moduan, konplexutasun handiko *gertaera* bat da. Horregatik, hori aitortzen ez duen kritika literarioak poesiari buruz ondorio oso mugatuak aterako ditu, non eta ez diren erabat faltsuak. Gutxi batzuk aipatuko ditut: poema baten irakurketa zuzenaren auzia, poesia irakurtzen irakasteko modua, poema bat itzultzeko irizpideak, poema baten prosifikazioa, poesia jasoaren eta poesia arruntaren arteko desberdintasuna eta abar.

3. Etika

Sarritan, bi modu bereizten dira iraganeko testu filosofiko bat irakurtzeko. Horietako bat da objektu arkeologiko modukoa balitz bezala aztertzea. Filosofia kontinentalak deiturikoan zorrotasun handiz erabilitako metodologia da hori. Beste modu bat da oraingo filosofiaren emaitza balitz bezala irakurtzea, haren argudioak filosofo bizi batek planteatu izan balitu bezala eztabaidatuz. Azken hurbilketa hori filosofia analitiko anglosaxoiaren ezaugarria da. Bi hurbilketa horiek, muturrera eramaten direnean, huts egiten dute. Ezin da iraga-

⁵ [Para que el poema acontezca tienen que estar presentes y relacionarse de algún modo el poeta-lector, la composición textual con intención poética, una relevancia textual, el lector-poeta, una especie de “superestructura” valoral, los medios de acceso al texto, las situaciones en las que tienen lugar las relaciones de realización de lo poético, una diversidad de procesos (composición, lectura, crítica, diálogo...) en múltiples sentidos y de alcance diverso.]

neko filosofia aztertu orainetik kritikoki epaitu gabe, eta, era berean, ezin da anakronikoki ulertu atzoko egunean idatzitako testu bat balitz bezala.

Nire ustez, Landaren obran hirugarren jarrera bat aurkitzen dugu: iraganeko filosofia irakurtzea, bertan gure orainaldiko bizitzarako irtenbideak aurkitzeko asmoz. Hirugarren jarrera hori zentzuz gauzatzeko, kontuan hartu behar da zein errealitatez ari garen, ez baita gauza bera leku batean edo bestean bizitzen dena. Landaren filosofia historiatik bereizten duena da intentzio osoz idatzita dagoela leku jakin bateko irakurlearentzat, zeinak problematika berezi bat baitu. Joera horren adibiderik onena *Éticas de crisis: cinismo, epicureísmo, estoicismo* (2012) liburua da.

2011ko lehen seihilekoan, Josu Landak ikastaro bat eman zuen Ciudad Juarezeko Unibertsitate Autonomoan, Mexikoko Chihuahua estatuan. Ciudad Juarez Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko mugan dagoen hiria da. *Mugaldeko munduaren* esperientzia, Landak izendatzen duen bezala, oso gordina izan daiteke. Ciudad Juarez ezaguna da bertako biztanleek pairatzen duten indarkeriagatik, pobreziagatik eta bidegabekeriagatik. Cormac McCarthy eta Roberto Bolaño idazle handiek, esaterako, mugalde hori esploratzeko erabili dituzte beren eleberri onenetako batzuk. Landak Ciudad Juarez eman zuen ikastaroa lehen aipatutako liburuan jaso zen geroago.

Lan horretan, zinikoen, epikurotarren eta estoikoen filosofiaren aurkezpen bikaina egiteaz gain, haien ideiak egoera berezi batetik aztertzen ditu Landak, Ciudad Juarezeko bizi-krisiaren egoeratik, hain zuzen ere. Liburuak oso argi eta zehatz azaltzen du ziniko, epikurotar eta estoikoen pentsamendu filosofikoa. Sokratismoaren azalpen batekin hasten da —hiru eskola horien aurrekaria—, gero Atenasko Antistenesen eta Diogenes txakurraren azalpenarekin jarraitzen du, ondoren Epikuroren kosmologiaren, epistemologiaren eta etikaren azalpenarekin ematen dio segida, eta Zenon Zitiokoak sortutako eskola estoikoarekin amaitzen da, non unibertsoari, logikari, patuari, askatasunari eta zoriontasunari buruzko bere teoriak nabarmentzen baitira.

Ez dut hemen laburbilduko, eta are gutxiago aztertuko, Landak Antzinaroko filosofo haien pentsamendura nola eramaten gaituen. Hemen aztertu nahi nukeena da nola lotzen duen berak pentsamendu hori gaur egun Latinoamerikan bizi den egoerarekin, bereziki, eta, zehatzagoak izateko, Ciudad Juarez bizi denarekin.

Landak ikusi du gure garaiez hitz egiteko erabiltzen den “krisi” kontzeptuak indarra galdu duela. Hain luzaroan egonda, krisia gure normaltasun berria bihurtu da. Hori dela eta, gure errealitatea hobeto ulertzen lagundu diezagukeen beste kontzeptu bat eskaintzen du Landak: gainbehera. Gure herrialdeetan bizi duguna gainbehera prozesua da. Baina Landa ez da hor geratzen. Haren diagnostikorik zabalena da munduak zibilizazio-ordenaren gainbehera bizi duela, Modernitatearen idealetan oinarrituta.

Gainbehera hori apokalipsi baten iragarpenaren parekoa al da? Ez du zertan horrela izan. Landak dio bizi dugun gainbehera zibilizazio-ordena berri baterako trantsizio gisa har daitekeela. Aurrekoa oinarri hartuta, Landak *krisi-etika* kontzeptua proposatzen du. Termino horren definizioa aipatuko dut: “mundua interpretatzeko sistema, preskripzio praktikoak eta ekintza moralak dituen, pertsona osotasunean egin ahal izateko, egungo gainbeherak biltzen dituen ondoko krisi, zorigaitz eta egoera kaotikoen erdian” (Landa 2012: 23).⁶

Filosofoen zeregin premiazkoena krisi-etika horretan lan egitea da, hau da, garai hauetan nabigatzeko modu bat eskaintzea, ez agindu-katalogo baten bidez, bizitzeko modu gisa baizik, *ethos* gisa, hau da, gure egoeran hobeto bizitzeko aukera emango digun zientzia gisa. Landak, gainera, *mugaldeko mundua* eta *mugaldeko etika* kontzeptuak sartzen ditu, bere hitzaldia entzuleei —Ciudad Juarezeko Unibertsitateko ikasleei— hobeto egokitzeke.

Landak dioenez, mugak eremu lausoak dira, eta bertan errealtate soziala zalantzazkoagoa da, dinamikoagoa, are bortitzagoa; baina, aldi berean, eremu horietan egonkortasun handiagoko eremuetan baino askatasun, sormen eta dinamismo handiagoa egon daiteke. Horrexegatik, mugaldeko etika bat dator krisi-etika batetik espero denarekin, goian deskribatu den bezala.

Beraz, beste galdera bat dago erantzuteko: zergatik jo behar du mugaldeko etika batek, krisi-etika batek zinikoen, epikurotarren eta estoikoen etika zaharretara? Ez al da gure krisia, mundu modernoarena, haiek jasan zuten mundu zaharraren oso bestelakoa? Landaren erantzuna da gizakiok ez gara batzuetan uste den bezain ezberdinak; Antzinateko filosofoek aurre egin behar izan zieten arazoak ez direla, azken finean, XXI. mendeko filosofoek dituztenen oso ezberdinak. Beti izango da, beraz, zer ikasia antzinako filosofoengandik, batez ere haiek bizi izan zutena bezalako krisia bizi dugun honetan, bakoitzaren ezaugarriak berdinak ez badira ere.

Liburuaren azken atalean, Landak hainbat estrategia proposatzen ditu antzinakoen pentsamendua gaurko munduan berreskuratzeko. Landak dioenez, aztertutako hiru eskolek, zinikoenak, epikurotarrenak eta estoikoenak, badituzte elementu komun batzuk, gaur egun nabarmentzea merezi dutenak: “giza arimarekiko erabateko konpromisoa, objektibismoa, arrazionalismoa, zientziaren aldarrikapena, etizismo indartsua eta eudemonismo sustrai-tua” (Landa 2012: 412).⁷

⁶ [Un sistema de interpretaciones del mundo, prescripciones prácticas y actos morales destinados a que la persona pueda realizarse a plenitud, en medio de las sucesivas crisis, zozobras y situaciones caóticas que engloba la actual decadencia.]

⁷ [Su radical compromiso con el alma humana, su objetivismo, su racionalismo, su reivindicación de la ciencia, su fuerte eticismo y su raigal eudemonismo.]

Landak, jakina, fisika helenista gainditua dagoela onartzen badu ere, antzinakoengandik tesi hau berreskura daiteke: gure arimaren ezagutza, hau da, gure subjektibotasun moralarena, errealaren ezagutza oinarritu behar da, hau da, zientzian. Horrek ez du esan nahi, inola ere, galdera etikoen erantzunak zientifikoak direnik, ez; baieztatzen dena da galdera etikoei ematen dizkiegun erantzunek bat etorri behar dutela zientziaren galderei ematen dizkiegun erantzunekin, munduan dugun lekua behar bezala ulertzeko. Horregatik, beharrezkoa da zientzia humanizatzea ere, gure *ethos*aren garapenean benetan baliagarririk izan dakigun eta gure bizitzatik deskonektatutako jakintza bihur ez dadin.

Bada Landak planteatzen duen beste zailtasun bat gure bizitzetan pentsamendu helenista berreskuratzeke: teoria hori *logos*aren ideia batean oinarrituta zegoen, arrazoi unibertsal batean, ordena kosmiko batean. Nola harnezake horrelakorik *logos* hori, arrazoi hori, ordena hori irmoki arbuiazen duen mundu postmodernoa? Landak dio krisiaren etika batek puntu finko bat aurkitu beharko lukeela, balioaren erreferentzia absolutu bat; bestela, galduta jarraituko dugu egungo nahasmenean. Hala ere, Landak liburu honek ez digu esaten nola berrasma genezakeen absolutua edo, agian, hobeto esanda, nola berraurkitu dezakegun.

Azkenik, Landak beste zailtasun bat planteatzen du, pentsamendu helenistan oinarritutako krisi-etika baten proiektura bidera daitekeena. Nola berreskura dezakegu garai hain gris, hain ilusio-galdu hauetan antzinako filosofoen eudemonismoa? Aurreko kasuan bezala, Landaren erantzunak fede-adierazpena dirudi argudioa baino gehiago, nahiz eta agian hori izan eragozpenari erantzuteko modu bakarra. Trías aipatuz, Landak esaten digu zoriontasunaren inperatibo bat dagoela, bertan behera utzi ezin duguna, eta hori gabe bizitza etikoak zentzua galtzen duela.

4. Zentzua

Filosofia ezagutza modu gisa ulertzen du Landak, baina baita bizitzeko modu gisa ere. Ikuspegi horretatik, filosofia gure existentziari zentzua aurkitzen saiatzen da, baina beti jarrera bat erabiliz, norberaren kontura pentsatuz eta el-karrizketaren bidez besteen konpainian jardunez. Filosofiaren ikuskera horrek eraman du Landa gai teoriko eta poetikoez —bi terminoen jatorrizko adieran— ez ezik, praktikoez ere arduratzera, hala nola etikaz, politikaz eta hezkuntzaz.

Hainbat idatzitan, Landak politikaren, gizartearen, kulturaren, artearen eta, bereziki, literaturaren kritika egin du. Genero horretako bere lanen artean aipa ditzakegu honako hauek: *Para pensar la crítica de poesía en América Latina* (1997), *Aproximación al verso libre en español* (2004), *Canon city* (2010), *Teoría del caníbal exquisito* (2019) eta *Tanteos* (2009), *Ensayes* (2013) eta *Filos de Reserva* (2023) saiakera-bildumak. Azken atal honetan, Landak bere zenbait idatzitan azaldu duen gai bati buruz hitz egin nahi nuke labur-labur: bizitzaren zentzuari buruz.

Zer da zentzua? Noiz du zerbaitek zentzua? Zerbaitek zentzua duela dio Landak, zergatiaz gain zertarakoa ere baduenean. Zerbaitek zergatik gertatzen den azaldu dezakegu, baina hori ez da nahikoa zertarako gertatzen den ulertzeko. Zentzuaren dimentsioak zerikusia du ez bakarrik kausekin, baizik baita balioekin eta helburuekin ere, ez bakarrik fisikarekin edo soziologiarekin, baizik baita etikarekin eta soteriologiarekin ere.

Landak zentzuaren ikuskera immanentea hartzen du. Zentzuak ez du mundutik kanpoko, gizatasunetik kanpoko errealitaterik behar. Hemen munduan eta hemen norberaren bizitzan existentziaren zentzua, helburua planteatu daiteke. Kontsolamendua eta erredentzioa ez dira transzendenteak, poetikoak eta filosofikoak dira, *Poesisa* eta *Noesis* uztartzen dituzte. Zentzuaren planoa, Landaren arabera, egiaren planoa ere bada, gizakiak errealtitatearekin erabat bat egiten duenarena. Era berean, zentzuaren bilaketa hertsiki lotuta dago egiarenarekin, eta egiaren bilaketa erabat lotuta dago zentzuarenarekin. Are gehiago: egian datza zentzua eta zentzuan egia.

Landak estoikoengana eta epikurotarrengana jo du etikari buruzko bere ideiak hortik garatzeko, eta Platonengana, hortik abiatuta, egiari buruzko bere ikusmoldea formulatzeko. “Platón: la experiencia de la verdad” bere saiakera bikainean —*Filos de reserva* (Landa 2023: 148-75) lanean—, Landak egiaren alderdi esperientziala azpimarratzen du. Esperientzia horrek errealtitatea eraldatzen du, eta, beraz, dimentsio etikoa du hitzaren esanahi sakonean. Beste era batera esanda: egiaren esperientziak gizakion bizitza aldatzen du, balioa ematen dio eta, gainera, zentzua.

Landak zentzuaren eta egiaren artean planteatzen duen harreman estuak baditu zenbait aurkari. Zentzuaren eta egiaren nozioak ontologikoki independenteak direla esan liteke, hau da, zentzurik gabeko egia eta egiarik gabeko zentzua egon daitezkeela. Lehenengo aukera da uste dutenena, zentzurik ez dagoenez, egia baino ezin dugula lortu, eta, azken finean, egia sendoen delako, hain zuzen ere, zentzurik ez dagoela. Gertaerak hotzak dira, ez dute esanahirik. Bigarren aukera da, egia objektiborik ez dagoenez, gauzei ematen diegun zentzu subjektiboa baino ezin dugula lortu uste dutenena, eta lor dezakegun zentzurik irmoena egia-rik ez dagoela erabat onartzean datzana delako uste dutenena.

Badago beste jarrera bat egia dagoela eta zentzua dagoela aitortzen duena, baina bere esparruak bananduta daudela, ez direla elkartzen. Inoiz ez dugu zentzurik aurkituko egiaren bilaketan, eta inoiz ez dugu egia-rik aurkituko zentzuaren bilaketan. Adibidez, lehenengo Wittgensteinen arabera, zentzua ezin da hizkuntzaren bidez *adierazi*, hizkuntzaren beraren zokomokoetatik *erakutsi* bakarrik baizik; esaterako, forma logikoaren bidez. Wittgensteinek azpimarratzen zuen zentzuaren esparrua ez dela egitateena edo, bestela esateko, ez dela egiarena, egitateak adierazten dituzten proposizioen inguruan soilik hitz egin dezakegulako egiazkoaz edo faltsuaz.

Zentzumena ezin dela adierazi, baina erakuts daitekeela dioen ideia ez da Wittgensteinena bakarrik. Ramon Xirauren aburuz, hizkuntza literala ez da existentziaren zentzura iristen, baina, Wittgensteinek ez bezala —hark zioenez, hori forma logikoak lortzen zuen—, Xirauk zioen poesiak metaforaren eta irudiaren baliabideen bidez lor zezakeela. Poesian bada egia bat, hizkuntza literalaren egiatik harago doana. Egia proposizioen eta gertaeren arteko korrespondentziara mugatzen ez dela onartzen dugunean, egiaren kontzeptua zabaltzen dugunean arau horretatik harago joan dadin —erabat ukatu beharrik gabe, proposizio bat egiazkoa dela argi dugun kasu arruntenetan behintzat gertaeren munduan halako zerbait dagoelako dela egia—, leiho bat irekitzen zaigu egia zentzuarekin berriro lotu ahal izateko.

Landaren jarrera bereizi egiten da aurrekoetatik. Lehenik eta behin, esan beharko litzateke Landaren ustez egia zentzuarekin bateratzea giza bizitzaren esferan gertatzen dela. Landaren filosofia humanista gisa deskriba daiteke, baina uste dut egokiagoa litzatekeela giza bizitzaren filosofia deitzea. Bere lehen liburuetakoa batetik, *De archivos muertos y parques humanos en el planeta de los nimios* (2002), azkenetako batera arte, *Humanismos primordiales* (2025), Landak “humanismo berria” dei genezakeenaren alde egin du. Humanismo horrek, berria izan arren, antzinako sustraiak ditu, eta, Mendebaldeko kulturaren kasuan, greziar pentsamendura jotzen du.

Landaren humanismoak gizakia bere existentziari zentzua ematen dion izaki gisa planteatzen du. Gizakia beste izaki guztietatik bereizten da bere existentziari zentzua eman nahi diolako, eta, are gehiago, nolabait, horretara behartuta dagoelako. Nihilismoa asmo horri egindako traizioa da, etikatik harago doana arau ontologiko baten antzeko zerbaiten gisa eratzeko.

Baina, zentzua eraiki edo aurkitu egiten da? Ikusi dugunez, Landak zentzuaren kontzeptzio immanentea defendatzen du. Zentzua hemen dago, lurrean, eta denon artean eraikitzen dugu, zentzua komuna da. Hala ere, Landaren pentsamenduan zentzuaren eraikuntzan bi maila bereiz daitezkeela iruditzen zait. “Avatares de sentido” saiakeran —*Filos de reserva* (2023: 249-56) lanean ere jasoa— Landak esaten digu zentzuaren ordenaren korrelatuetako bat gizakia dela, zentzu-izakia den heinean. Aipatu egingo dut:

Badirudi zentzuaren erresumak polaritate korrelatibo bat integratzen duela: printzipioz hutsala den “bere baitan” bat, zeinak zentzua hartzen baitu “bere baitan” hori zentzudun errealitatetzat hartzen duen izatearekin duen harremanetik, eta, hori egitean, halakotzat eratzen baitu. (Landa 2023: 250)⁸

⁸ [El reino del sentido parece integrar una polaridad correlativa: un “en sí” en principio indiferente, que adquiere sentido en su relación con el ente que asume ese “en sí” como realidad con sentido y, al hacerlo, lo constituye como tal.]

Zentzu horrek gizakiaren eta munduaren arteko harreman bereziari erantzuten dio.

Hala ere, saiakera horretan bertan, dagoen guztiaren zentzuaren ikusmolde bat eskaintzen digu Landak, eta hori ere harreman-sare bat izango litzateke, baina ez nahitaez gizakiek parte hartuko luketen sare bat. Aipatu egingo dut:

Oinarrizko esperientzia, beste edozein esperientzia baliozkotzen duena, zentzuaren esperientzia da; munduaren koherentziatik, denak izateko arrazoia duen ordena etengabe betetzetik, sortzen den etengabeko gertaeraren egiaztapena: korrespondentzia-egitura edo -sistema baten berezko eta eguneroko intuizioa, antzinako sentiberatasun zorrotzak “ordena eder eta adimentsu” gisa adierazi zuena: kosmosa. (Landa 2023: 250)⁹

Landak esaten duena da gauza bakoitzak besteekin bat etortzea bilatzen duela, ordena kosmiko baten barruan. Gizakiok beste gizakiekiko eta unibertsoaren gainerakoekiko korrespondentzia ere bilatzen dugu. Errealitatean aurkitzen dugun zentzua, neurri batean, gauzekiko dugun korrespondentziaren arabera da, baina giza zentzu hori zentzu sakonagoko beste modalitate bat izango litzateke, kosmosarena, munduan egia eta zentzua bilatzera bultzatzen gaituena. Esan liteke hemen dagoela egiaaren teoriaren jatorririk sakonena korrespondentzia gisa, egia hutsetik harago garamatzan jatorria, gauza guztien azken zentzura garamatzana, zeinaren parte baikara gu.

Erreferentziak

- GONGORA, Luis de. (1994 [1613]). *Las Soledades*. Robert Jammesen edizioa. Madril: Castalia.
- LANDA, Josu. 1996. *Más allá de la palabra. Para la topología del poema*. Mexiko B. F.: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
- LANDA, Josu. 1997. *Para pensar la crítica de poesía en América Latina*. Coyoacán, Mexiko: Instituto de Investigaciones Filológicas-UNAM.
- LANDA, Josu. 2002. *De archivos muertos y parques humanos en el planeta de los nimios*. Zapolan, Jalisco: Arlequín.
- LANDA, Josu. 2002. *Poética*. Mexiko B. F.: Fondo de Cultura Económica.
- LANDA, Josu. 2004. *Aproximación al verso libre en español*. Anzoátegui: Fondo Editorial del Caribe.

⁹ [La experiencia de base, que valida toda otra experiencia, es la experiencia del sentido; la constatación del perenne acontecer de la coherencia del mundo, del cumplimiento incesante de un orden en el que todo tiene su razón de ser: la intuición espontánea y cotidiana de una estructura o sistema de correspondencias, que la perspicaz sensibilidad antigua figuró como un “orden bello e inteligente”: cosmos.]

- LANDA, Josu. 2009. *Tanteos*. Mexiko Hiria: Alfil.
- LANDA, Josu. 2010. *Canon city*. Mexiko Hiria: Infinita.
- LANDA, Josu. 2012. *Éticas de crisis: cinismo, epicureísmo, estoicismo*. Guanajuato: Guanajuatoko Unibertsitatea.
- LANDA, Josu. 2013. *El método en Marx*. Caracas: Monte Ávila Editores Latinoamericana.
- LANDA, Josu. 2013. *Ensayes*. Mexiko B. F.: Instituto Nacional de Bellas Artes / Consejo Nacional para la Cultura y las Artes / Eternos Malabares.
- LANDA, Josu. 2019. *Teoría del caníbal exquisito*. Mexiko: La Jaula Abierta.
- LANDA, Josu. 2023. "Avatares de sentido". In J. Landa, 249-56.
- LANDA, Josu. 2023. "Platón: la experiencia de la verdad". In J. Landa, 148-75.
- LANDA, Josu. 2023. *Filos de reserva*. Mexiko B. F.: Beyond Dimensions.
- LANDA, Josu. 2025. *Humanismos primordiales*. Mexiko B. F.: Fondo de Cultura Económica.
- LANDA, Josu. 2025. *Platón: la filosofía como ciencia política*. Mexiko B. F.: Fondo de Cultura Económica.
- PAZ, Octavio. 1956. *El arco y la lira*. Mexiko B. F.: Fondo de Cultura Económica.
- REYES, Alfonso. 1944. *El deslinde. Prolegómenos a la Teoría literaria*. Mexiko Hiria: El Colegio de México.